

# Ama izateko lekurik onenak

SAVE THE CHILDREN GKEaren arabera, 2015ean Norvegia da munduko herrialderik onena ama izateko. Hona hemen estatu onenen eta txarrenen zerrenda:

## Estatu onenak

- 1) Norvegia
- 2) Finlandia
- 3) Islandia
- 4) Danimarka
- 5) Suedia
- 6) Herbehereak
- 7) Espainia
- 8) Alemania
- 9) Australia
- 10) Belgika

## Estatu txarrenak

- 169) Haiti, Sierra Leona
- 171) Ginea Bissau
- 172) Txad
- 173) Boli Kosta
- 174) Gambia
- 175) Niger
- 176) Mali
- 177) Afrika Erdiko Errepublika
- 178) Kongoko Errepublika Demokratikoa
- 179) Somalia

ERNEST F-CC BY SA



Zerrenda hau osatzeko 179 estatutan amaren osasuna, hezkuntza, diru-sarrerak eta emakumeen estatusa aztertu dira. Harrigarria bada ere, AEB, Erresuma Batua, Frantzia, Kanada eta Japonia ez dira aurreneko hogeien artean azaltzen.

Lehen batean harrigarria eman

dezakeen beste datu bat da erditzeko unean AEBetako emakumeek Poloniakoek baino hamar aldiz hiltzeko arrisku handiagoa dutela.

Zerrenda buruan dauden hamar estatuetan 290 emakumetik batek galduko du umea jaio eta lehen bost urteetan; zerrendako azken hamar estatuetan, zortzik. Daturik harrigarriena AEBtako hiriburutik dator, Washingtonetik: munduko 24 hiri aberatsenetako bat bada ere, hark du umeen heriotza-indizerik handiena. Stockholmen eta Oslon 1.000 jaioberritik bi baino gutxiago hiltzen dira; Washingtonen, berriz, zazpi.

Azterketa argitara eman duen GKEko presidente Carolyn Miles-en arabera, datuok frogatzen dute aberastasun ekonomikoa ez dela amentzako faktore lagungarri bakarra, eta estatuak osasunean eta hezkuntzan egiten dituzten inbertsioek oso pisu handia dutela. ■

## 120.000 antilope hilik Kazakhstanen, ez jakin zergatik

Munduan dauden saiga antilope espezieko herenak hil dira azken urteetan Kazakhstanen. Ikerlariek *Pasteurella* eta *Clostridia* izeneko patogenoak atzeman dituzte gorpu gehienetan, baina ezin dute ziurtzat jo hori izan denik heriotzen arrazoia.

ttiki.com/339842  
(Gaztelaniaz)

## Produktu kosmetikoen analisisan aurrerakuntzak

Kosmetikak inguratzen gaitu, eta gehienok erabiltzen dugu produkturen bat edo beste. Eskuetan, aurpegian edo gorputzeko edozein ataletan ematen duguna aztertzeko sistema aurreratuak garatu ditu EHUko Josu Lopez-Gazpio ikertzaileak.

ttiki.com/339843  
(Euskaraz)

## Nolakoa litzateke ozono geruzako zuloa Montrealeko Protokolorik gabe?

Montrealen 1987an sinatutako protokoloak klorofluorokarbono produkzioa debekatu zen mundu osoan. Uste denez, horri esker mende honetan ez da ozono zuloa areagotu eta, gauzak ongi, 2050. urte inguruan guztiz desagertuta egongo da. Zaila da esatea zein litzatekeen egungo egoera Montrealgo Protokolorik gabe, baina hainbat hipotesi daude.

ttiki.com/339844  
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza  
interaktiboa  
www.iametza.com  
T.943 37 67 16